



UDALBATZA ERATZEKO ETA ALKATEA HAUTATZEKO SAIOKO AKTA, 2019ko
EKAINAREN 15ekoa

BERTARATUTAKO

ZINEGOTZI JAUN/ANDRE

HAUTETSIAK:

Gentza Alamillo Udaeta jauna
Iñigo Pinedo Vadillo jauna
José Antonio Bartolomé Pesquera
jauna
Montse Angulo Solloa andrea
Susana Martín Benavides andrea
Itxaso Gorbeña Allende andrea
Unai Campo Arenaza jauna
Karmele Población Martínez andrea
José Antonio Gorbea Alonso jauna
Marian Mendiguren Mendibil andrea
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, Bilkura Aretoan, bi mila eta hemeretziko ekainaren hamabosteko hamabiak direnean, lehen deialdian eta Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. artikuluek Udalbatza eratzeko eta alkatea hautatzeko saioa egiteari buruz ezarritakoa betez, bildu egin dira alboan adierazitako zinegotzi jaun/andre hautetsiak, zeintzuek aurretiaz aurkeztu baitituzte Amurrioko eskualdeko Hauteskunde Batzordeak egindako egiaztagiria.

IDAZKARIA:

M^a. del Carmen Rojo Pitillas andrea

Idazkariak hasiera eman dio bilkurari eta Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Orokorren (HAOLO) 195. artikulua irakurri du:

“Ehun eta laurogeita hamabosgarren artikulua

1. Tokiko Udalbatzak jendaurreko bilkuran eratzen dira, hauteskundeak egin eta hogei egunera, zinegotzi hautetsien aldarrikapenaren kontra hauteskundeekiko auzi-errekurtsoa aurkeztzen denean izan ezik. Kasu horretan, Udalbatza hauteskundeak egin eta berrogei egunera eratzen da.

2. Xede horretarako, adin-mahai bat eratu behar da, ekitaldian dauden hautetsi nagusienak eta gazteenak osatua, eta Udalbatzako idazkaria arituko da idazkari gisa.

3. Mahaiak aurkeztutako egiaztagiria edo hautetsien nortasunaren ziurtagiriak egiaztatuko ditu (Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udalera igorritako ziurtagirietan oinarrituta).

4. Mahaiak Udalbatza eratutzat joko du, baldin eta zinegotzi hautetsien gehiengo osoa bertan badago. Hala izan ezean, beste bilkura bat egingo da bi egun beranduago, eta orduan Udalbatza eratuta geratuko da, bertaratutako zinegotzien kopurua edozein izanik ere”.

Jarraian, adin-mahaia eratu da, ekitaldian dauden hautetsi nagusienak eta gazteenak osatua. Horrez gain, Udalbatzako idazkaria arituko da idazkari-lanetan aipatu ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195.2. artikulua xedatutakoari jarraikiz. Horrenbestez, eratutzat jo da adin-mahaia, honako kide hauekin: KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ andrea, zinegotzi hautetsi nagusia (presidentea); Itxaso Gorbeña Allende andrea, zinegotzi hautetsi gazteena, eta M^a. Del Carmen Rojo Pitillas andrea, Udalbatzako idazkaria.

Adin-mahaiko kideek aurkeztutako egiaztagiriak konprobatu dituzte.

Egiaztagiri horiek ondo daudela ikusi ondoren, adin-mahaiko presidentek ADIERAZI DU UDALBATZA ERATU DELA eta honako kide hauek osatzen dutela:

IZEN-ABIZENAK

ALDERDI POLITIKOA

GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA	EAJ-PNV
IÑIGO PINEDO VADILLO JAUNA	EAJ-PNV
JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ PESQUERA JAUNA	EAJ-PNV
MONTSE ANGULO SOLLOA ANDREA	EAJ-PNV
SUSANA MARTÍN BENAVIDES ANDREA	EAJ-PNV
ITXASO GORBEÑA ALLENDE ANDREA	EAJ-PNV
UNAI CAMPO ARENAZA JAUNA	EH-BILDU
KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ ANDREA	EH-BILDU
JOSÉ ANTONIO GORBEA ALONSO JAUNA	EH-BILDU
MARIAN MENDIGUREN MENDIBIL ANDREA	AIARA BATUZ
IRATXE PARRO UZQUIANO ANDREA	

Udalbatza eratu denez, jarraian zinegotzi hautetsiek beren karguez jabetu behar dute HAOLoren 108.8. artikuluan xedatutakoa betetze aldera eta apirilaren 707/79 Errege Dekretuari dagokionez. Hartara, honako galdera hau egingo dio mahaiko presidentek zinegotzi hautetsi bakoitzari: “¿Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal, guardando y haciendo guardar la Constitución como norma fundamental?” gaztelaniaz edo "Zure kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzu zinegotzi karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzula?" euskaraz. Honakoa erantzun dute zinegotzi hautetsiek:

- GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA: legeak hala behartuta hitz ematen dut.
- IÑIGO PINEDO VADILLO JAUNA: legeak hala behartuta hitz ematen dut.
- JOSÉ ANTONIO BARTOLOMÉ PESQUERA JAUNA: Sí prometo por imperativo legal.
- MONTSE ANGULO SOLLOA ANDREA: legeak hala behartuta hitz ematen dut
- SUSANA MARTÍN BENAVIDES ANDREA: legeak hala behartuta hitz ematen dut
- UNAI CAMPO ARENAZA JAUNA: Sí prometo por imperativo legal.
- ITXASO GORBEÑA ALLENDE ANDREA: legeak hala behartuta hitz ematen dut.
- KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ ANDREA: Euskadi Errepublikaren lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut.
- JOSÉ ANTONIO GORBEA ALONSO JAUNA: Por imperativo legal y hasta la formación de la República de Euskalerría, prometo.
- MARIAN MENDIGUREN MENDIBIL ANDREA: Euskadi Errepublikaren lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut.
- IRATXE PARRO UZQUIANO ANDREA: legeak hala behartuta hitz ematen dut

Ondoren, idazkariak alkatearen hautaketa erregulatzen duten arauak irakurri ditu. Arau horiek Hauteskunde Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/85 Legearen 196. artikuluan daude jasota:

“Ehun eta laurogeita hamaseigarren artikulua

Udalbatza eratzeko bilkuran bertan alkatea hautatu da, prozedura honi jarraikiz:

a) Hautagaiak izan daitezke beren zerrendetako buru gisa dauden zinegotzi guztiak.

b) Horietako batek zinegotzien botoen gehiengo osoa eskuratzen badu, hori izango da hautetsia.

c) Zinegotzietako batek ere gehiengo osoa eskuratu ezean, alkate izendatuko da dagokion udalerrian herritarren boto gehien eskuratu dituen zerrendako buru den zinegotzia. Berdinketa badago, zozketa egingo da.

100 eta 250 biztanle arteko udalerrietan, zinegotzi guztiak izan daitezke alkategaiak; horietako batek zinegotzien botoen gehiengo osoa eskuratzen badu, hori izango da hautetsia; zinegotzietako batek ere gehiengo osoa eskuratu ezean, alkate izendatuko da dagokion udalerrian herritarren boto gehien eskuratu dituen zinegotzia”.

Alkategai izan daitezke beren zerrendetako buru diren zinegotzi guztiak. Kasu honetan, honako hauek dira:

ALKATEGAIAREN IZENA

ALDERDI POLITIKOA

GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA (EAJ-PNV)

(EAJ-PNV)

KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ ANDREA

(EH-BILDU)

IRATXE PARRO UZQUIANO ANDREA

(AIARA BATUZ)

Ondoren, bozkatu egin da eta honakoa izan da emaitza:

GENTZA ALAMILLO UDAETA jaunak zazpi (7) boto eskuratu ditu.

KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ andreak hiru (3) boto eskuratu ditu.

IRATXE PARRO UZQUIANO andreak boto bat (1) eskuratu du.

Horrenbestez, aintzat hartuta Udalbatzako legezko zinegotzi kopurua hamaika dela eta legezko gehiengo osoa sei zinegotzi, GENTZA ALAMILLO UDAETA alkategai jaunak lortu du gehiengo osoa, eta beraz, Aiarako Udal honetako alkate izendatua izan da.

Kargua onartu eta gero, GENTZA ALAMILLO UDAETA jaunak bere karguaz jabetu behar du, aurretik kargua zin eginez edo aginduz. Hartara, mahaiko presidentek honako galdera hau egin dio: “Zure kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzu alkate karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarrizko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzuela?”

GENTZA ALAMILLO UDAETA alkate jaunak honakoa erantzun du: legeak hala behartuta hitz ematen dut

Mahaiko presidentek aginte-makila eman dio alkate jaunari.

Ondoren, Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak testu bat irakurri du. Honakoa dio:

"Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu korporazio berria eratzeko osoko bilkuran parte hartu duzuen guztioi.

Zinegotzi eta zinegotzien karguaz jabetzen diren pertsonak zoriontzia.

Eskerrak eman nahi dizkiegu maiatzaren 26an parte hartu zuten guztiei, botoa emanaz.

Herritarrek aukeratu gaituzte, guztion artean, Aiara hobeago bat lortzeko.

Eta hori izango da gure helburua datozen urteetan

En primer lugar agradeceremos a todas las personas que habéis acudido a este pleno de constitución de la nueva corporación.

Felicitar a las personas que hoy tomáis posesión de los cargos de concejales y concejales.

Querría también dar las gracias a todas las personas que participaron el día 26 de mayo depositando su voto a los optaron por dar apoyo a nuestra formación como a los que no. Prometemos no defraudaros

La ciudadanía de ayala nos han elegido para hacer entre todas y todos un ayala mejor. El trabajo en común, el debate y el acuerdo, seguirán siendo nuestra forma de trabajo

Y ese será nuestro objetivo durante los próximos años."

Toki Erakundeen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 36.2. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, alkate jaunak Udaltzari jakinarazi dio zein den Diruzaintzaren egoera 2019ko ekainaren 14an.

Udaleko Ondasunen Inbentarioari dagokionez, 1991ko dokumentu bat baino ez dago eskuragarri. Urte asko pasa dira dokumentua eguneratu gabe, eta, beraz, ez du egungo inbentario erreala islatzen.

Alkate jaunak amaitutzat eman du saioa hamabiak eta hogeirenean, eta landutako guztia jasota gera dadin, Akta hau egin da Arespalditzan, bi mila eta hemeretzi ekainaren hamabostean, eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren fede ematen dut.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA ,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Carmen Rojo Pitillas.